

## GANADUEN GAÑEAN JOLASA.



—¿Zein da abere motik onena nekazariarentzat?

—Toki zelayetan abere aundia eta desberdinetan chikia.

Gañerakoan idi onak bear du izan aundia eta luzea.

Izan bear ditu sayets ezurak zabalak, larrua lodia eta aragiari itsatsi gabea.

Zezenak bear ditu izan bizkarra zabala, lepoa lodia, giltzak laburrak.

Isterrak eta belaunak bearditu biribillak, oñak alderagiñak, illea laburra eta lodia, baña malgua.

Buztana jaso, luzea, illez ongi jantzia eta adarrak lodiak eta zuriak.

Beyak bear du izan aundia, adar zabala, kopet zabala eta tripa aundia.

Adarrak izan bear ditu leunak eta argiak, errapea zuria, aundia eta mea.

Gañerakoan bei onak bear du izan zezenaren antzekoa.

Ganadua erosteko denboran bear da ongi ikusi ortzik falta duen, argaldu ez dedin.

Bei beltzak chikiak izan oi dira eta esne guchiago ematen dute besteak baño.

Baña ematen dute beti eta dira gogoragoak lanerako.

Bei zuriak aundiagoak dira eta ematen dute esne geiago, baña denbora guchiagoan.

Gorriak aundiagoak dira oraindik eta esne geiago ematen dute, baña denbora guchiagoan.

Argatik dira obeak bei beltzak, esnea denbora geiagoan ematen dutelako.

Gañera bei beltzak dira umegiñagoak beste kolorekoak baño,

Iru urteraño etzayo umerik arrerazo bear beyari.

Garagarrillarekin Uztaillaren artean da onetarako denborarik onena bei bat besterik ez duenarentzat.

AGUSTIN PASCUAL DE ITURRIAGA.

